



TXIRRITXOLA

20. ZENBAKIA - 1.997. EKO EKAINA - EUSKERA BATXORDEA

Hurrengo orrialdeetan doazen dendari, eta tabernariek,

LEHENGO BERBEA EUSKERAZ

Egiteko konpromizoa hartzen dabe.

Euskera batxordetik, aldez aurretik, gure eskerrik beroenak.

Euren eredua jarraituz Herritarroi dei egiten deusuegu, erosketak komertzio honeetan egin daizuezan eta

EUSKERAZ EROSI

gainera.

« Gitxika gitxika, asko egiten da. »

LEHENGO BERBEA EUSKERAZ



TXOBERNEKO, Agurtzane




JANARI- DENDA, M^a Angeles



HARAGITEGIKO, Patxi



ESTANKUKO, Fidela



BOLIBARREKO, Felix




MARKAIDANEKO, Jose Luis

LEHENGO BERBEA EUSKERAZ



JULIANENeko, Jon




TXOMINENeko, Juan Carlos



SABIN JATETXEKO, Sabin



MARLOI DENDAko, Mª Jesus




AKETXEKO, Igor



JOSE MARINEKO, Txetxu

LEHENGO BERBEA EUSKERAZ



ITXASOKO, Jorge



EROSLEKO, M^a Asun eta Josebe




KRESALAKO, Salva



GOTZONENEKO, Sorkunde



URZABALEKO, Kontxi




OILOTETGIKO, Jose Mari


LEHENGO BERBEA EUSKERAZ



OGINDEGIKO, Begoña



GAZTELU BEGIKO, Gotzon



ARRAIN DEGIKO, Tere



GORRONDONAKO, Andoni, Itziar, Julen eta Jose Luis

HERRIKO TALDEAK ITXAS-ALDE

ITXAS-ALDEren BARRIAK

ITURRIAN LAN KOREOGRAFIKOA



Eusko Jauraritzak antolatutako Euskal Koreografo Barrien 1. Erakusketan hartu dogu esku, «ITURRIAN» izeneko lanagaz aukeratuak izan gintzazalako. ITXAS-ALDE taldekoek aurkertu genduan koreografia 10 minutuko de eta erakusketa bera apirlean zehar, hiru eateburutan, aurkeztu izan dogu Gasteiz, Lasarte-Oria eta Bilbon.

Koreografia ezbardinak ikuzi ahal izan doguz, dantzaren munduan dagozan jokera ezbardinen

erakusgarri. Geure, euskal dantza tradizionalen oinarritutako koreografia da. Dantza eta kanta batzen dauz XVIII - XIX. Mendeen arten kokatuz, iturrira ura bila joaten ziran emakumeen irudia adierazo gura izan dogu. Hamabi neskak dantzatzen dabe, ur suilak buru ganean garraiatuz. Luis Aranbururen musika zuzenean jo izan dogu. Horretarako, 3 soinulari, txistulari bat, atabal eta piano jole bana, ITXAS-ALDEko 6 musikarik hartu izan dabe esku.

Lan gogorra izan dogu. Epe laburrean jantziak eta suilak prestatu, musika egokitu eta dantza bera harik eta ondoen gauzatzeko, zapatu-domeketan ekinean eta ekinean ibili izan gara. Baina, esku hartu dogun gustiontzat esperientzia polita eta aberasgarria izan da eta eragospen guztien ganetik, hauxe esan geinke: *Urduritasun eta izerdi guztiek merezi izan dabela !*


Koreografia lan hau, Bakion, udako jaialdian eskeintzeko asmoa dogu, taldearen 25. urteurrena ospatuteko eta urtero egiten dogun ekitaldiaren egitarauan, hain zuen.

ITXAS-ALDEK 25 URTE AURTON !

Aurton ITXAS-ALDE taldea jaio zala 25 urte bete dira. Urteurren hori zeozelan ospatuteko taldeko dantzari, dantza irakasle eta musikari izandako guztiak bat uteko amesa dogu. Gure asmoa da, dagonilaren 15ean, Andra Mari egunean, arratsaldeko dantzaldian, taldeko izandako guztien artean Bakioko herriari zeozer eskeindutea.

25 urteotan taldera asko ta asko etorri eta joan diranez, hemetik, taldeko izandako guztiei dei beroa egin gura deusuegu, eratu doguzan ekintzetan esku hartu. Ereduze, bada, eratu doguzan entsaioetara.

Asko izan zareen lez eta danori honen barri emoteko erarik eukiko ez dogun lez, beti baten bat ahaztuta lotuten dalako, zeuek zeutera zuen artean izandakoei gurera etorri eta ekintza horreetan gugaz bat egin daien, esateko eskatu gura geunskizue. Eskerrik asko !



HERRIKO TALDEAK

BIRIBILEAN EDO KORROAN EGITEN DIRAN EUSKAL DANTZAK

Eukal Herrian egiten dan dantza erarik ugari eta aberatsena dogu hau.

Mota bi dagoz. Bata, gizonzkoek baino egiten ez dabena eta eskuak alkarreri lotu barik, eta bestea, andra-gizonek batera egiten dabena. Azken honeek eskuak alkarreri emonaz edo emon barik egin leitezke, beti dantzaren arabera.

Lehengo erakoak, hau da gizonzkoenak, batez be Iparraldeko hiru lurraldeetan egiten dira eta baita Baztan inguruko herri batzuetan be. Horreetariko batzuk honeexek dira: Dantzak-Jauziak eta Mutil Dantzak, esate baterako. Honeetan guztiotan

dantzaren egitura orokorrak bardintsuak izan arren, lurralde bakotxak beti bere berezitasuna emoten deutse, batez be pausuetan. Ganera, batzuetan, pausu bakotxak bere izena dauka eta dantzari artean erratzerik ez izateko zuzendariak izen horreek abesten dauz, pausuak egin baino lehentxuago.

Bigarren erako batzuk, beste hainbaten artean, esate baterako, Soka Dantza, Dantza Luze, Trapatan, Alkate Dantza, Giza Dantza eta Larrain Dantza dira.

Ikusten denez, dantza era horretako pausu eta koreografia franko dogu Euskal Herrian osoan.

Unai Beitia (Artzakoa)

ITXAS-ALDEko Dantzaria

BAKIOKO ABESBATZAK ESTRENALDIA UDAN



Bakioko Abesbatzekook, lan gogorrean jo ta ke dihardugu aspaldi honetan.

Joan dan urteko irailetik, ez dogu bururik altza **Anton Larrauri** musikagile ospetzuak guretzat sortutako konpozizio barrantik.

«Guretzat...» Dinogunean, ez dogu esan gura abesbatzarentzat bakarrik,

«Aste Musikalaren» urteurrena dalata, bakiotar guztioi zuzenduta dago eta.

Anton Larrauri maisuak, «musika kontenporaneo» deritzona idazten dau, eta kasu honetan, danotzat oso ezaguna dan abesti batean oinarrituta dago; baina ez deusuegu aurreratuko zeinetan. **Zatoze Uztailan 20-an** estrenaldira eta zeuok entzungo dozue. Izenburua gitxienez esango dogu: «BESTELSAKO GUDARIAK»; esanguratsua ezta ?

Abeslan hau **zailtasun handikoa da** eta honez ganera abots askotan biderkatzen da pasarte batzutan. Hori dalata, Bakioko Abesbatzaren abotsak indartu behar izan doguz, eta horretarako Mungiako Abesbatza izango dogu abeskide.

Egun horretako ekitaldial **zati bi** izando dauz:

- **Bata Bakioko Abesbatzak bakarrik** abestuko dauana eta garaiz gustietako euskal musikagileen lanetan oinarriturik.
- **Bigarrean, Bakio eta Mungiako Abesbatzek** alkarrekin eta **haize orkestra** baten laguntzaz **«Bestelako Gudariak»**

Guretzat, egitasmo hau, erronka itzel bat da. Zuoi lan honen frutua eskeintzeko gogoak animatzen gaitu. Hau dalata, **han ikusi eta entzungo gaituzuen itxaropenarekin, laster arte.**

Bakion, 1997 Ekainaren 1 ean

BAKIOKO UDALERRIAREN MUGARRIAK

Herri guztietan jazoten dan lez, Bakion be sarri izaten dira arazoak, gorabeherak, bai bertoko herritarren artean bai alboetako herriakaz, alkarrregazko hartuemonetan, argitasunak lortu behar izaten doguzanean.

Gaur egun, horrelango buruhausteren bat gure artean sortuten danean, behingoan berotuten gara. Gero, hasarre gogorrean iminten gara eta, azkenean, harik arinen, alkarrizketa zintzoa egiteko neurriak hartu beharrean, goragora jotzen dogu. Lehengo, legelari zuhur eta azkarra bilatu ostean, ez bai barik auzitegira jotzen dogu.

Ai, ene! Gizajook! Or doaz pikutara gure neke, behar, izerdi eta ekinaldi bidez, ondo kostat, irabazi doguzan bostekoak!...

Honelakoa da, zoritxarrez, gaurko mundua. Bakezaleak baino, burrukazaleagoak agertuten gara. Gure eskubideak izan ezik, besterik ez dogu ikusi eta onartuten.

Gu geu baztertu? Gu geu zapaldu?... Ez, horixe! Ni oinperatuko nauan amaren semerik oraindinokarren ez da jaiio... Hau izaten da, gehienetan, guk burrukatu, sinistu eta erabiltzen dogun lege nagusia eta sarritan, bakarra.

Baina, ostera, gure aurrekoak, gure arbasoak eta gurasoak ez ziran horrelangoak. Eurak patzadaz bizi ziran, gu baino nasaiagoak ziran, euren bizikerea bare-baretsua zan. Guk beharrezkotzat daukagu berebela, arinago ibilteko, leku guztietara belu heldu arren. Gura ta gura ez, egunero irakurri behar dogu izparringia, gure kirioetarako kaltegarri izaten bada be. Eurek ez euren asto zahartxu bat baino, Bermeora edo Mungia joateko. Sutondoko pozgarrizko alkartasunean igaroten ebezan, gogaitu barik, orduak eta orduak, kopla-kontetan edo lehenagoko sorgin ipuinak esaten. Igandeaetan edo euri-egunetan, gazteek bolo jokoan neurtuten ebezan euren indar eta trebetasunak, eta zaharrek, barriz, musean edo alkarrerri adarra jotzen emoten eben denborea. Aste osoan behar asko eginda, bai, baina inoiz ezergatitik ernegatu edo larritu barik. Benetan, euren bizimodua geurea baino askozaz be txiroagoa izan arren, euren bizikerea geurea baino alaiagoa, baketsuagoa eta nasaiagoa zan.

Hona heldu ezker, aitatu beharrekoa deritxot, antxina Bakioko bolatokia Ardantza ondoko sastrakan egoala. Gaur gure artean bizi diran zaharrek hantxe ezagutu dabe eta dionenez, hamaikatu txakolin boteila postuarean jokatu dira bertan. Geroago, bolatoki hau Estankoalde ondora ekarri eben. Hemengoa askok ikusi eta barriz, Tabernatxu deritxogun etxean egoan eta.

Bizikera ha adierazoteko jazokera bat, ez da ipuina, edestu behar deusuet. Ez dakit noiz edo urtetan jazo zan, baina ukatu ezindeko egia de behin baten gure herriko agentariei jazo jakena. Bakioko mapa bakarrik egiteko, beharrezkoa zan herri bakotxaren mugak agirian eta errez ikusteko eran ipintea (guk bakiotarrok mugarriari munarri estan deusogu). Bakio eta Bermeo artean ez egoan zalantzarik. Gure arteko mugak argi egozan, bada, Kontxakoerreka edo Oxaorta dalako erreka (Bakioko erreka nagusia) zan gure herrien arteko lerro banatzailea. Ostera, Bakio eta Mungia arteko mugea ez eben hain garbi ikusten. Gure herri biren artean dana zan Mendia, sasia eta otea. Ez egoan harririk, ez zugatz ezagundik. Hona arte Bakio eta hortik hara Mungia zala adierazoteko erakorik ez.

Gauzak holan zirala, Bakioko eta Mungia agintariarik goitik hartutako agindua bete eta, era berean, gure arteko arazoa betiko atonduteko, erabagi jatorra hartu eben: legegizonak eta epaileakbaztertuta, eurak euretara alkartu, berba egin eta

zorioneko mugarriok gure herriei jagoken leguan imintea. Esan eta egin. Gure gizonok aukeratu eben , bada mungiarrazak alkartuteko eguna, garrantzi haundiko zeregin ha beteteko. Sasoi hatako baiotarrentzako gure herriak eukan arazorik garratzena ha zan: udalerriko mugak betiko argitu eta jartea. Baina orduan be, Barrabasen ziria sartu jaken buruetan. Bakio osoa txikia zan eta haundiagotuteko. Gitxienez, Jatamendi oso-osorik geugandu beharko genduan. Baita Zumetzagako inguru guztia eta Emerandoko zati on bat be. Hori lortuteko, mungiarrei arretarik onena emon beharko eutseen, hareei ondo be ondo esanda. Bigun-bigun berba egin eskero, koipekeria apur bat erabiliz, irabaziko ebezan, zalantza barik, Mungia ordezkarren bihotz eta adimena.

Egun heldu zanean, asmo haregaz aukeratu eta ederto apindu ebezan asto bizkor bi, janariz, edariz eta beste gauzaz beteta. Lau asto-otzarak bete ebezan, bada: txakolin txanbil bi, bata zuria eta bestea gorria; lapa-otzara bat be, lapaz beterik; beste zorro bat lanpernaz ganezka; lukainka txorta luze bat eta, zergaitik ez?, pernil eder bat , gaztai ugari, eta taloa be neurri barik.... Bai, polito horniduta joan ziran Bakioko ordezkarriak, asto etan gizon, pozik eta bakior, itzelezko negoziua egingo ebelakoan.

Hartu eben Zemetzagako bidea, bada, baina Olatxuburu heldu orduko, nekatuta eta egarrial erretea egozan.

- «Txo, oraindinoakarren goiz dok. Atsedentxua egin behar joagu bertan eta!...

Gure mutilak, Txomin, Patxillo, Kontantzio eta besteak, zurrutada batzuk hartuten gasi ziran euren eztarria labanduteko. Patxadaz eta astiro zutundu eta berriro gasi ziran estratzen gora, etengako barriketan, aldarte onean, txantxetan eta alkarrerri adarra jotzen. BAI, Jerusalemgo gurutzbidea baino ibilaldi luzeagoa zan ha. Ez negarrez eta heriotzara joiazalako, ez dinot horregaitik, 14 geldialdi baino askozaz gehiago egin ebelako baino.

Beste aldeko ordezkarriak, ostera, mungiarraz, ezer barik eskuan makila bana hartuta baino ez, ibili ta ibili ziran. Sasoi heldu ziran aurretiaz aukeratutako tokira. Baina, han ez egoan inor. Itxaron eta itxaron, baina dana alperrik. Azkenean, gogait-gogaituta, Bakioko lurraldean sartu eta bakiotarren bila abiatu ziran. Hainbat denboratan ibili ostean, heldu ziran euren belarrietara baiotarren gedar, barre-zantzo eta berbotsak. Behingoan egin eben alkar batzuk besteekaz eta lehenengo agurrak eginda, bakiotarrek, euren txikitasuna eta makaltasuna ahaztuteko, eta euren eskuzabaltasuna eta herriko aberastasun ugariak erakustearren, txakolin txanbil bateri zapotza kendu eta harro-harro mungiarrei eskaini eutseen herri haretan ezelan be lortu ezin eben edari fin ha.

Ha zan txakolina! Ez egoan inon halango edari gozoagorik. Sudurzuloetatik sartuten jaken lurrunaren gozoa! Haxe nahikoa zan gizon harrek liluratuteko. Mungiarraz pozik egozan, bakiotarren arretea ikusita. Janari ederrak, edariak, hobeak. Ha zan egotaldia!... Eta jateko gogo!... Bakiotarraz be, pozarren egozan eta lantzean behin alkarrerri keinu egingez euren artean esaten eben:

- «Irabazita jaukaguk joko hau. Honeek geureak dozak...»

Talde biak, anaikero, beharrik ezean, alkartasun jatorrean, berba eta berba. Ondo jan eta ondo edan ostean, halango betekada ederra hartu ta gero, euren eginkizun nagusia egiteko asmoz edo...

BAKIOKO UDALERRIAREN MUGARRIAK



- «Fernando eta Txomin, zuok joan zaitezze hara gora. Erraimundo eta Patxillo, Beheko trokara... Zu eta ni bertan lotuko gara, zenteilaren mugarriok behingoa ininiko doguz»

Inoan Bakioko alkateak. Esatea erreza da, baina egitea beste zorro bateko uruna zan. Hausnarrean dagoan kortakoko behi zaharraren antzera, gure gizonok be, zeruan lez egozan, urdaila beteta, sabela astun, burua bero, oinak behearen ganetik jaso exinik eta adimena erdi ilun. Ganera hazur guztiak gogortuta eta behar egiteko gogo gitxi...

Orduan, mungiarren agintari lez agertuten zanak esan eban:

- «Gizonak! Konturatu barik beluegi egin jaku. Laster eguzkia Gaminiz aldeko itsas ertzean estalduko da, gaua ganean daukagu eta gu Mungiatik asago gagoz oraindinokarren. Zer deritxozue, bertan hasita mugarrial sartuko bagenduz? Lehenengoa bertan eta besteal, joanez joanez, bide ondoan ininiko doguz eta ordu betean amaituko dogu hona ekarri gauazan azaro madarikatu hau».

Mungiarrek ago batez erantzun eban:

- «Egia dok. Adiskidetasun eta hasarrekontza barik, oraintxe kendu behar joagu buruhauste hau».

Bakiotar gizajoak, halango aparti-kopua jan ostean, ez egozan eztabaidetan hasteko eran. Euren adimenak ez eukan zorroztasunik Emerandoko lurrez jaubetuteko beste, ez eta herriaren eskubide ezagunak jagoteko be.

- «Konstantzio! Hik zer dinok, bada?»

Esan eutson alkateak idazkariari. Eta honek:

- «Ni konforme naiagok, kontxo! Bertan sartuko joaguz eta kitu!».

Esan eta egin. Hala amaitu zan bakiotarrek aurretiaz euren buruetan asmatu eban «negozio biribil ha». Benetan amaiera kaskarra lortu ebena. Eta garaile urteteko asmoz abiatu ziranak, burumakur, galtzaile eta otzan-otzan bigurtu ziran Biora. Egia esan, egun hatan ez ziran konturatu lotsagarritzko jokaerea erabilena. BAI, hurrengo egunetan, euren buru eta adimena argitu ziranean. Baina orduan, eginak eginda egozan.

- «hor konpon! Guk inogaz ez dogu sortu ezelango haserrekontzarik, ta ganera, zoragarritzko arratsaldea igaro dogu, mungiarrekaz ahaztu ezineko alkartasun zintzoan. Zorieneko mugarriak hor dagoz ondo eta sakon sartuta, edonork errez ikusi daiazan».

Hori esanez zurituten eban gure agintariek euren errusko jokaera motza. Harrezko, hor ikusten doguz Mungia lurraldeak ia Goikolea alderaino sartuta. Bai Emerando bai Zumetzaga gure mugarrietatik kanpo geratu ziran betiko.

Gure aurretikoek, nire ustez, baeuken diplomazia apurra, baina negozioetarako ez eukan trebetasunik. Baina, halan eta guztiz be, parkatuta dagoz. Ez da?

Martin GOITIA

1981eko BAKEA aldizkarian

(Iniaki MARTIARTUK egokitua)

IPUINAK

LUKIA ETA ERROIA (Alegia)

Behinola baten, txori handi-handi bat egoan, baltz-baltza, moko luze eta gizagaizo: Erroia zan.

Esnez egindako gaztai bat hartu eban, bere mokoan sartu eta zugatz baten tontorreraino adarrik adar igon eban.

- Hau gaztai ona !, esan eban bere artean Erroiak. Nik neuk, bakar bakarrik, jango dot gusti hau !


Baina, halako baten, tapatan-tapatan lukia hurreratu jakon, goseak hilda hurretatu be. Eta holan esan eutson:

- Egun on Erroi jauna ! Polita zara ian, gero ! Baina zure abestiak askoz politagoak dira... Pozik baino pozago entzungo neukez zure abesti eder horreek... !

Erroia, lukiari entzunda, grauetan hasi zan, poz-pozik, benetean ! Baina grauetan hasi ta batera, braust ! mokotik gaztaria jausi jakon eta Lukiak, bere ago handia zabalduz, dzaust ! gaztai osoa iruntsi eban.

Erroi baltz gizagaisoa, gaztai barik lota zan !

Irakaspena: Ene irakurleak !
Zenbat barritsu eta guzurti !
Zenbat Luki, Erroi gizagaisoen lepotik bizi diranak



(Deustuko Ikastolako aldirkaritik, egokitua)

Iniaki MARTIARTU

196ko zemendian



BERBALAPIKOA

LUKI=	azeri. (Bakiko Berbea)
ERROI=	bele. (Bakiko Berbea)
MOKO=	txorien agoa.
GIZAGAIZO=	gizaxo, koitadu
TAPATAN-TAPATAN=	astiro-astiro, txiri-txiri, tipi-tapa.
GRAUETAN EGIN=	karrask egin, karrak egin, erroiak egiten dauan zaratea.
-REN LAPOTIK BIZI=	-ren kontura bizi.

IPUINAK

KUKUBEL (Euskal ipuin zaharra)

Kukubel, artazain txikia, neskato ona zan, eta oso polita ganera.

Behinola baten mendian, ardiak jagoten egoala, maitagarri bat agertu jakon, eta esan eutson:

- Kukubel neskato ona zara-eta, zer gura dozu nik zuri emotea?

- Nik txilibitu sorgindu bat gura dot. Beraren soinua entzungo daben guztiak dantzan jarriko dauazan txilibitu sorgindua.

Eta maitagarria urregorritzko txilibitu polit bat emon eutson.

Kukubel urregorritzko txilibitu ha joten hasi zanean -ene !, gauza harrigarria ! - mendiko pago, haretx, ardi, arkume eta loretxuak dantzan hasi ziran. Ha, bai zala ikustekoa !!

Herriko abadea ehiztari amorratua zan eta behin, bere txakur eta suiskiluagaz, Kukubel ardiak jagoten egoan toki ondaraino heldu zan, eta han erbien zelatan, sasiarte baten, ostendu zan. Orduan, eleizgizona, txilibituaren soinua entzunak batera, sasiarte saltoka ta triskaka hasi zan, soineko guztiak urrurtu artean. Haren hasarrea txilibitua isildu zanean! Kukubel gordinik jango eban, bada!

Abadeak, hurrengo domekan, pulpitutik esaten ekin eutson:

- Kukubel sorgina da eta erre egin behar da!

Biharamonean, herri osoa, aldatea aurretik, herriko zelaian batu zan, sorginaren azkena ikusteko.

Kukubel, eskuak lotuta, abarren ganean erretoko ipini eben. Orduan, Kukubelek alkatea jaunari holan eskatu eutson:

- Alkate jauna, arren, erreta hil baino lehen, urregorritzko txilibituaz asken abestia jotzen itziko deustazu ?

Eta alkatea baietz.

Txilibituaren soinua entzunaz batera, zelaian egoaz guztiak, atso haginbako eta hango ondomoko guztiak dantzan hasi ziran.

Hango zarraparra eta irrintzinak! Hango arnasestua eta izerdi beroa bota beharra!

Guztiak neke-neke egin ebazanean, Kukubelek esan eban:

- Bizitzea praktatu artean, ez dot txilibitu bau agotik kenduko.

Danak baietz ta baietz erantzun eutsoen, parkatuta egoala, baina arren ta arren txilibitu demontre ha isilduteko.

Isildu zan Kukubel eta dantzea amaitu zan.


Eta herritar guztiak kukubel ez zana sorgina autortu behar izan eben.

Hori halan bazan,
ez bazan,
ez neuri bazan.

BERBALAPIKOA

MAITAGARRI:	mari, azti-ahalmenak andra ona (sorginaren bestelakoa)
EHISTARI:	ehizari, ehizan (kazan) egiten dauana.
AMORRATU:	Sustu, burubero, porrokatu (zeozer egitea biziro gogoko dauana).
SUSKILU:	Zizpa, eskopeta
-ren ZELATAN (EGON):	-ren begira (egon), -ren adi -adi. (egon).
TRISTAKA:	saltoka, jauzika.
BIAHARAMONEAN:	urrengo egunean.
ARREN:	mesedez, otoi.
ONDOMOKO GUZTIAK:	dan-danak (bape itzi barik).
ZARRAPARRA:	zarata handi, zalapart, burrundara.
ARNASESTU:	itobehar, arnasbehar, itoaldi, itomen.
NEKE-NEKE EGIN:	guztiz nekatu, indargetu.

(herri ipuina)
Iniaki Martiartu
1996ko Irailaren

HERIRKO EKINTZA**HONELAXE IZAN ZEN KORRIKA TXIKI BAKION.**

Hemen dator korrika
zabaldu begiak
bihotza poztu eta
erne belarriak
laster izango dira
gaurko bihurriak
biharko Euskadiko
euskal hitzlariak

Euskal itxaropena
Ezin dogu galdu
hartu gure mezua
ez alperrikaldu
egin euskaraz eta
gaitezen arindu
gora euskal jendea
inoiz ez moteldu.

KORRIKARI HURRENGO ARTE

KORRIKARI HURRENGO ARTE !

Euskal Herriak Berretsi dan euskara berreskuratu gura dauala, eta ariniketan gainera . Martxoaren 14an Aita Villasantek emon eutson hasiera aurtengo edizioari, Gipuzkoan barrena bi Euskal Herrien arteko muga apurtu eban Korrika hurrengo egunean.... Tipi-tapa, tipi-tapa nafarroa ere goitik behera zeharkatu eban korrikak. Tafallan, kaparrotsun edota Tuteran ongi etorri beroa emon eutsoen, zer esanik ez Iruñan, Euskal Herriaren bihotzean. Bakiora ere heldu jakun itsasoari begira, eta polito hartu genduan. Hori bai, geure argazkilaria profesionalari - Jorge Busturia, The best reporter - Ditzosozko tramankulua lazkitu jakon eta betirako galdu doguz aurtengo esfortzuaren eta jaiaren irudiak, baina tire, hortxe daukazuez beste Euskal Herritar batzuren izerdienak, zeunak gogora ahal izateko,.



Cursos de EUSKARA ikastaroak
BAKIO ETA MUNGIA

KULTUR ETXEan
 ☎ 619 33 69

KINTTOPEKO EUSKALTEGIA
 BERTIZ 8,1. esk.
 ☎ 674 43 16

Izena eman ekainaren 30a baino lehen Apuntarse antes del 30 de junio

UDAN IKASI EUSKARA KORRIKA!
 EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETARA izena eman

KULTUR ETXEAN**BIZKAIERARI BURUZKO MAHAI - INGURUA**

Bakioko Kultur Etxeak abuztuaren 27an «Bizkaieraren etorkizuna» izenpeko mahai-ingurua eskeiniko dau. Moderatzaile Eguzki izango dogu eta bizkaieraren egoera arlo ezberdinetan aztertudo daben partehartzaileak hurrengo honexek:

Kontxi Gabatxo, Administrazioa dala ta.
Ione Etxebarria, Hedabideak.
Xabier Amuriza, Kultura.
Eta Irakaskuntzaren aztertzailea, oraindil baieztu barik.

TXIRRITXOLA

Azkenaldi honetan liburu mordobat heldu da liburutegira. Mota akotako liburuak dagoz.
Barre egiteko...

«*Jamaika iskusteko jai* gaituk» Bob Marley-ren bitxikeria honegaz hasten da gramatika degenaratiboa delakoaz aritzen da liburu hau. «Lehen irakurketa batean, irribarrea sortarazten digu, baina berehala datorkigu burura hitz joko horren bestelako interpretazio sakonago bat».

Liburu honeetan aurko daikegu beste definizio batzuk:

Marmitakones lejanos: Euskal Herriko nostalgia gastronomikoaz, Almodovar-ek egindako pelikula.

Me-lodiak: Pavarotti, Montserrat Caballé, Demis Roussos...

ZOROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA**Joxean Sagastizabal**

Beste Herrien egoerak ezagutzeko...

«Ipuin hauek Hego Afrika beltz garaikidearen bizi konplexua aztertzen dabe, ahozko istorio-kontalarien teknika tradizionalaren bidez. Istoriook ez dira batere tradizionalak. Argi erakusten dautsegu arrazismoaren ondorioak eta bera eragin dauen egitura legala.»

SOWETON KONDATUAK**Ellen Kuzwayo**

Umeez Euskal mitoak ezagutzeko...

« Entzun ondo, Ion! laguntza behar duzun bakoitzean, kanta ezazu abesti hau:

Galtzagorri, Galtzagorri
naturzale, irakasle,
jeinu txiki maitagarri,
arbasoen adiskide,
hator gugana, hator, ongi etorri»

GALTZAGORRI GUREKIN

CIRQUE DE PARIS**CIRQUE DE PARIS.**


Maiatzaren 21ean zirkua egon zen Bakion. Arratsaldeko 6-retan hasi zen. Ez zen izan oso luzea baina bueno...

Niri gehien gustau zitzaidan espektakuloa, pottoka bat tximino bat bizkarrean zeramana izan zen: Pottokak, eszenatokira irten zenean, buelta bat eman eta tximinoarekin eskapatu egin zuen; zirku guztia bere atzetik zihoan. Pottoka, ostabere sartu zuten barrura eta bueltaka hasi zen berriz.

Niri gitxien gustatu zitzaidan espektakuloa, dantzan hasi zirenean eta bat bolteretak ematen izan zen.

Niri paniko edo bildur gehien eman zidana izan zen: trapezistak bueltaka hasi zirenean han goian; Nik Anderreri esan nion «hori jausi egingo da».

Holan izan zan Parisko zirkua, ez zitzaidan asko gustatu baina bueno, animali klase asko zituen.



ARKAITZ LEGARRETA

DENBORA PASA

• Ipini izena marrazki bakoitzari. Hitz guztiak *s-z* idazten dira.



_ a g _ _ _ a



_ _ t _ a




_ _ r g _ _ a




_ u _ _ a




_ a _ _ a




m _ r r _ _ k _ _ a




o _ _ _ _ k _ a



b _ _ _ a



u _ _ a



_ _ t o r _ a




i _ _ _ l _ a



_ _ k _ a

• Ipini banderako hitzak laukietan. Kontatu ondo hizkiak, aukera bakarra dago eta.




- sasia
- txistua
- isila
- eskubidea
- soinua
- nahastea
- lasaitasuna
- astea
- sekretua
- lastoa
- adiskidea

**UDALEKU IREKIA
EUSKERAZ
BAKION**

Uztailaren 14tik 24ra

Astegunetan, 10:00etatik 17:00etara

Hainbat ekintza egiteko aukera ! 



7 urtetik 12 ra bitarteko ume euskaldunentzat

Diru kopurua: 7.500 pta.

**Informazio gehiago Kultur Etxean,
☎ 6193369**